

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua, txakurren jabe guztiei zuzenduta dago. Adin-tarte, bizi-modu... desberdinak izan arren, txakurrak edo maskotak dituzten herritar guztiei bideratuta dago. Baina bereziki, arazo fisikoak dituztenei edo adineko pertsonentzako izango da; hauek, modu errazago batean eta esfortzurik egin gabe, txakur kaka jaso ahalko dutelako. Horretaz gain, hotelak, udaletxeak, turismo bulegoak... ere ZitzToolen bezeroak izango dira, zerbitzua erosi eta beraien bezeroei eskainiko dietelako.